



## **AURRETIAZKO JENDAURREKO KONTSULTA, EUSKADIKO PREBENTZIO, SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUEN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak Euskadiko Prebentzio, Su-itzalketa eta Salbamendu zerbitzuaren lege-aurreproiektua izapidetzea aurreikusten du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoari jarraiki, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez erregulatzailerik

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2017ko abenduaren 12ko batzarrean, onartu egin zuen xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dituen erabakia, zeinaren arabera zehaztu zen xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak, aurretiazko kontsultaren izapidea betetzeko, iragarkia jarri ahal izango duela Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Beraz, azaldutakoa betetze aldera, eta lege-aurreproiektuaren izapidetzarekin hasi baino lehen, honakoaren bidez herritarrak dei egiten ditugu Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-oholean argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan.

**Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria**

**Pedro Anitua Aldekoa**  
(Izenpe elektronikoa)



**AURRETIAZKO JENDAURREKO KONTSULTA, EUSKADIKO PREBENTZIO,  
SU-ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUEN  
LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

<p><b>EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b></p>	<p>Prebentzio, su-itzalketa eta salbamendu zerbitzuek gizartean duten garrantzia azpimarratu nahi da, baita horien eginkizunak eta antolaketa eguneratu ere. Horretarako, lege-lerruneko arauen bidez arautu nahi dira, beti ere helburu hauek lortzeko: zerbitzua lurralde osoan ematea bermatzeko, zerbitzu horien artean eta zerbitzu horien eta bestelako zerbitzuen artean jardun bateratu eta koordinatua ahalbidetzen duten mekanismoak aurreikusteko, eta zerbitzu horiei atxikitako langileei aplikagarri zaizkien eta lege-erreserba duten berezitasunak aurreikusteko. Hori guztia, zerbitzu horien administrazio titularren autonomiaren kaltetan gabe.</p>
<p><b>ARAU ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN</b></p>	<p>Arau horren bitartez, prebentzio, su-itzalketa eta salbamendu zerbitzuak beren osotasunean lege propio batean araututa egotera pasako lirateke, eta ez, orain arte bezala, zati batean larrialdiak kudeatzeko lege orokorrean. Izan ere, larrialdi-egoeretan esku hartzera deituta dauden funtsezko zerbitzu guztiak arautzen dituen arau horretan, suhiltzaileei dagokiena baino ez da arautzen, gainerako zerbitzuek beren arauketa propioa duten bitartean: polizia, osasun langileak, etab.</p>
<p><b>ARAUAREN HELBURUAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• PSISZ deritzenen eginkizunak eta eginbeharrak eguneratzea eta zerbitzu horietan ezaugarri bereziak dituzten alderdietan arreta jartzea, baina baita larrialdietako aditu moduan bestelako zerbitzuekin batera egiten dituzten gainerako ekintzetan ere arreta jartzea.</li> <li>• Zerbitzuak aginte- eta hurrenkera-ildo bakarrean egituratzea, kategoria profesional ezberdinetan taldekatuta.</li> <li>• Suhiltzaile boluntarioen sistema ezabatzea eta enpresako suhiltzaileen prestakuntza egiaztatzea</li> <li>• PSISZ deritzenentzako Erakunde arteko Batzordea sartzeko eta bere osaera eta eginkizunak zehaztea</li> <li>• Hautaketa eta prestakuntza sistemak eguneratzea, Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiaren esku hartzearekin.</li> <li>• Inskripzio-erregistro bat sortzea eta identifikatzeko egiaztagiria propioa ezartzea</li> </ul>
<p><b>IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ ERREGULATZAILEAK</b></p>	<p>Aurreko idatz-zatietan azaldutako inguruabarrak direla-eta, nahitaezkoa da arau-izaerako neurri espezifikoak izapidetzea, ezinezkoa baita bestelako konponbideak bilatzea, ez baitago erregulaziorik.</p>